

XARPA

Nire azken ametsa izugarria izan da. Eskolako irteerak zerikusi handia izan du ametsean. Irteera Igartubeiti baserri museora egin dugu. Polita izan da, baina nik nahiago nuke, abenturaz betetako parke horietako bat bisitatu Igartubeitira joan baino; 6.mailakoak bai! Horiek bai izan dutela pagotxa! Hori pentsatzen nuen ametsa izan aurretik; orain, ordea, dena ezberdin ikusten dut. Benetako abentura bat zer den ikasi dut. Igartubeiti baserrira joatea harrigarria izan da, bai horixe!

Arratsalde hartan, futboleko entrenamendua izan nuen eta etxera leher eginda iritsi nintzen. Afaltzeko orduan, nahiko lan nuen burua eusten, baina, noski gure etxean afaltzeko ordua sakratua da, eta denok elkarrekin afaltzea ezinbestekoa.

—Zer moduz gaurko irteera, Paul? —galdetu zidan aitak.

—Bueno... gauza handirik ez: baserri zahar bat, tramankulu zaharrak... —erantzun nion burua plateretik ia jaso gabe.

—Aspergarria orduan, ezta? —nire anaia txikia, Jon, isilik egon ezinda— Gu Oriora joan ginen eta primeran pasa genuen hango parkean.

—Bueno, Paul, ziur nago zuen irteeran ere gauza interesgarriak egin dituzuela —amak.

—Bai, arrazoi duzu ama. Tramankulu zaharrek ere badute bere xarma. —esan nuen Joni aurka egitearren —Bai, Igartubeiti gustatu zait. Ba al dakizue zer den gehien gustatu zaidana?

—Zer? —Jonek burlati.

—Ba, han zebilen katu beltza.

—Katua? A ze txorakeria! Hemen gure auzoan ere bada nahiko katu.

—Bai, Jon. Baina katu hau berezia zen...

Eta horrela jardunean igaro genuen afari tarte. Jada, begiak irekita eutsi ezinik, amak eskutik heldu eta oheraino eraman ninduen. Ez nekien ondo gau hartan bizi behar nuen istorioa.

Bat-batean Igartubeiti baserrian nengoen, baina baserriak ez zuen itxura bera. Erdi-aroko baserria bizirik zegoen, bertan entzun eta usain zitekeenak ez zuen goizekoaren inongo antzik. Leihoko zirrikitutik begiratzen nuen barrura. Sukaldean, mahai eta aulkietan jendea zegoen. Ez nuen oso garbi entzuten zer ari ziren hitz egiten, baina han eserita zegoen norbaitek halako zerbait esan zuen:

—Aurtengo sagarren usta ona izan da, azken urteetako onena. Dagoeneko sagarrak sabaian prest daude. Egun handia iritsi da; gure dolarea martxan jarri behar dugu.

—Miau! —esan nuen ezustean.

Ni nintzen "miau" egiten? Beldurtu egin nintzen. Nire hanketara begiratu eta katu hankak, eskuak katuarenak, katuen moduan hitz egiten nuen, goizeko katu beltza ni neu nintzen! Izugarria zen, baina egoera hura ez nuen desatsegin, katu baten itxurarekin ez zen inor nire presentziaz ohartuko; erdi-aroko bizimodua ezagutu nezakeen! Izugarria zen! Denboran zehar bidaiatzen ari nintzen katu baten itxurarekin! Baserriko atea irekita zegoenez barrura sartzeko ez nuen inolako zailtasunik izan. Sukaldearen erdian jarritako harlosa baten gainean pizten zen sua, eta handik zintzilik supazterreko katea eta pertz handi bat. Sukaldeko haltzari nagusian, laratzean, emakumea, gizonezkoa eta haur bat.

Noski! Haiek irteeran aipatu zizkiguten Igartubeitiko familia ziren: Domingo, Kattalin eta Martin txikia. Haien jantziak ere bereziak ziren. Behi baten burua ere sumatzen zen sukaldean, koadro bat balitz bezala. Orain ulertzen nituen irteerako azalpenak! Bai horixe! Behiaren ondora hurbildu bezain laster sentitu nuen beroa, ganaduak botatzen zuen hats beroarekin egiten baitzioten garai hartan aurre neguko gau eta egun hotzei; bai noski!

Etxekoek nire presentzia normaltzat hartzen zutela zirudien, etxeko katua izango nintzen akaso. Martin txikia laraztetik jaiki zenean, jarraitu nuen. Sukaldearen ondoan zegoen logela batean sartu zen; hango oheak ez zuen gaurkoen antz handirik baina polita zen. Ohe gainera salto egin nuen. Martin nigana hurbildu eta laztantzen hasi zitzaidan. Ummm! Zoragarria! Une hartan ulertu nuen katuen urrumaren zergatia. Halako batean, Kattalin sartu zen logela barrura:

—Baina, Martin! Zenbat aldiz esan behar dizut Xarpak ezin duela ohe gainean egon! —esan zion Kattalinek.

—Baiii, ama.

—Eta mugi zaitez! gaur dolarea martxan jarriko dugula badakizu. Inguruko denak laguntzera etorriko dira, baina guk ere zerbait eman beharko diegu ordainetan, ezta? Zuk ez al zenidan janariarekin lagundu behar? “Esan da erraz eta egina garratz”, ezta Martin?

—Bai, ama —burumakur —esana beteko dut.

Beraz, bai etxeko katua nintzen, Xarpa. Baserria jendez betetzen hasi zen. Familia osoak: emakumezko, gizonezko nahiz umeak. Denak dolarean lan egitera zetozen. Lehendik, patsa-azkan, sagarrak jo eta zapaltzeko lana egina zegoen. Dolarea martxan jartzea ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula, tramankulu galanta zen benetan. Baserriko egitura dolare haga galant batek baldintzatzen zuen, berau baserria eusten zuten dolare habeen gainean zegoen. Ikusgarria zen, benetan! Egiptoko garaia etorri zitzaidan burura, piramideak ikusgarriak izango ziren, bai, baina tramankulu hura piramideekin konpara zitekeen. Nola mugitzen zen gero? Eskaila-mailak jaitsi nituen sukalderaino eta han torloju antzeko ardatz bati bueltak ematen ziharduten hiru gizonezko sendo ikusi nituen. Magia zirudien! Zeharkako dolare hagak mugiarazten zituen torlojuak, jaitsi edo igo, momentuko beharraren arabera. Gero, sagardoa upategira zihoan zuzenean, toki aproposa hau ere; etxeko txoko freskoena.

Xarpa izanik, gora eta behera, Igartubeitiko zirrikitu gehienak ezagutu nituen. Ukuiluan animaliak: lau behi, bi idi zaldi eta asto bat zeuden. Beste aldean, sagardo upelak. Goiko solairuan dolarea, aroztegia eta honen ondoan bazen ate misteriotsu bat. Ate hura ondo itxita zegoen eta ez nuen barrura sartzerik lortu. Halako batean, erle bat ateratzen sumatu nuen atearen atzetik. Hura jarraitzea erabaki nuen.

—Zer? Zer zabilta katu beltz hori? —galdetu zidan erleak.

—Erleak hitz egiten?

—Eta katuak? Ni zurekin magina aldiz gurutzatu naiz, baina orain arte zure atzamarrekin ehizatzen besterik ez zaitut sumatu.

—Zu nor zara?

—Ni erle beltza naiz, erle beltzetan langilea, eta Jaxinta deitzen naute; baserriko Jaxinta andrea hil zenean, ni izan bainintzen notizia jaso zuen erlea.

—Bueno ba... ni Paul, ez, ez, zera... Xarpa naiz. Xarpa katua.

—Xarpa katua? Katuak etxe-abereak dira eta ez dute hitz egiten baina zuk...desberdina dirudizu. Guk erleek beste maila bat dugu.

—Beste maila bat?

—Bai, horixe, Ez al duzu inoiz entzun: “ animaliak akatu egiten dira, erleak hil”. Gu izakien kategorian gaude. Argizaria (argitarako), polena (gaixotasunak sendatzeko), ezti

goxoa eta ez ahaztu polinizazioan dugun garrantzia.

—Ah! Ba egia! Ez nintzen inoiz zuen garrantziaz jabetu.

—Beno, Xarpa; ni banoa, gaur bidaia luze bat egin behar baitut.

—Bidaia? Eta nora?

—Itsasora... itsaso zabalera bidaiatu behar dut. —aurpegi irribarretsuz —Baserri hau oso ondo dago, baina nire bizitzan beste zerbaitez ezagutzeko irrikan nago. Bidaia bat egin behar dut. Pentsatuta daukat. Nire kabuz hegan ez nintzen inoiz iritsiko amestu dudan toki horretara, baina plan bat dut.

—Plan bat?

—Bai, ausartzen al zara nirekin etortzera?

—Noski.

Eta horrela, bat-batean, leraren gainean geunden. Ni upel atzean buztan luzea ezkutatu ezinik, ukuiluko bi idiak lera tiraka eta ondoan, zaldi gainean, Domingo. Jaxinta erlea ere ondoan nuen.

—Nora goaz? —galdetu nion Jaxintari.

—Itsasora, Xarpa. Benetako pirata itsasontzi batera. Itsas-goizentzat daramagu sagardoa. Itsasoa ere, sagardoa preziatua da, eskorbuto izeneko gaitz batez babesten baititu marinela.

—Eskorbutoa?

Bidaia luzea izan zen. Pasaiaiko porturaino iritsi ginen eta han izugarritzko itsasontzi batean sartu ginen. Lera eramandako sagardo kupelaz itsasontzia hornitu ondoren, martxan jarri ginen berriro.

—Baina hau? Arrantza-ontzi bat ez al da, Jaxinta?

—Ba... ez dakit, Xarpa. Nire ametsa itsasoa ezagutzea zen, hemen beste era batera arnas daiteke...

—Baina... katuak ongi etorriak izango al dira horrelako itsasontzietan?

—Bai, motel! Gainera hemen, zure gustuko nahiko arrain izango duzu jateko.

—Arrainak? Aj! Nik ez ditut arrainak atsegin. Niri Pizza...

Kolpetik sekulako oihu bat entzun zen:

—Pirata-ontzi bat begi bistaaaan! Pirataaak! —zioen masta nagusitik marinela besoekin ere keinuak eginez.

Itsasorantz begiratu eta izara beltzak zabaldua zituen ontzi bat hurbiltzen ikusi nuen. Eskifaiako kideak urduri zeuden, alde batetik bestera begira, bat-batean kanoi hotsa entzun nuen: Puum! Puum!.

—Ez, ez! beldur naiz Jaxinta! Hemendik joan egin nahi dut!

—Esnatu zaitez, Paul! Ametsetan ari zara —amaren ahotsak esnatu ninduen.

—Ama, ama! ba al dakizu zer den eskorbutoa? Euskal marinelek ez zuten gaitz horren beldurrik, Igartubeitiko sagardo miresgarriak babesten baitzuten.

Auskalo non amaitu zuen Jaxintak, agian bakailao edo bale arrantzuan. Bidaian ezagutu eta ikusitakoa ez dut inoiz ahaztuko. Ezta Xarpa ere. Ni orain Xarparen zati bat naiz, han, Igartubeiti baserriaren zaindaria dabilen Xarparen zati.